



Skatepark berriaren egileari elkarrizketa

ZUT arkitektura etxeko Alex Mosterin elkarrizketatu du Aiurrik / 12

Jai giro bikaina Urnietan, eguraldia lagun

Baserritarren eguna ospatuko da igande honetan, Arrosadiako Amaren egunarekin batera. Astelehenean, berriz, Xoxoka jaietan murgilduko da / 6-11



Ortzaikako karobia piztu zuten berriro, Manu Izagirre Burdinako kide zena omentzeko / 2



Juan Garrido, itsasgintzaren historian ezagun diren itsasontzien maketa egilea / 3



Petritegi nagusitu da Euskal Herriko sagardo txapelketa herrikoiairen bosgarren edizioan / 16





Manu Izagirreraren senitartekoak, Andoaingo eta hainbat herrietako ordezkari politikoak, ekitaldian hitza hartu zutenak eta Burdinako kideak larunbat goizean Basteron egin zuten ekitaldiaren amaieran. AIURRI

Manu Izagirre gogoan

Laudoriozko hitzak entzun ziren Basteron eta Ortzaiakako karobian, uztailean zendu zen Manu Izagirre arkeologoa gogoan hartuta. Gipuzkoako kultur ondarearen alde lan handia egin zuen, eta horrexegatik Burdinak esker ona adierazi nahi izan zion

Xabier Lasa ANDOAIN

Jakinduria handiko gizona, ekin-tzaile nekazezina, langile tematia, diskretua, ilusio kutsatzailea, artetsua egitasmoen inguruan konplizitate eta sinpatia sareak eratzeke orduan... Gizon handi bat marrazten diguten hitz ederrak erabili zituzten Izagirreraren adiskideek eta harekin elkarlanean aritu ziren makina bat pertsonak hura definitzeko asmoz, Basteroko ekitaldian.

Maider Lainez Andoaingo alkateak, Burdina taldeko Ander Otañok eta Alberto Santana historialariak egin zituzten sarrrerako hitzak. Unai Barrutia Urki dantza taldeko dantzariak aureskua dantzatu zuen, eta Eragiyok abesbatzak emanaldi laburra eskaini zuen.

Aingeru Zabala, Ramon Aiertza, Marta Zabala, Koldo Sansinenea, Jordi Pardo, Karmele Barandiaran, Xabier Agote, Joxeramon Berrondo, Mertxe Urteaga... hainbat lagun Izagirreraren nortasuna eta bere eginak deskribatzen saiatu ziren, gertakizun eta pasadizu ezberdinen bitartez.

Kontakizunetan emozioa nabarmendu zen. Bereziki, galdutako adiskide zintzoaren hutsunea sumatzeagatik, baina baita miresmena ere, bizi zelarik kultur ondarearen alde erakutsi zuen adoreaagatik.

Gipuzkoako Aldundiko Arkeologia saileko arduraduna izan zen heinean, egun herrialdean ezagutzen ditugun hainbat ondare arkeologikoen berreskurapenean parte hartze zuzena izan zuen Izagirrek, eta horixe gogorarazi zen ekitaldian zehar. Besteak beste, Zerain eko Aizpeako labeak, Aiako Agorregiko burniola, Igartubeiti baserria, edo, Albaola euskal itsas ondarea. Santanaren hitzetan, “Gipuzkoan ezin dira hamar kilometro zeharkatu topo egin gabe bere ahaleginaren arrastoa daukan kultur ondare historiko batekin”.

Ortzaikan, bigarren ekitaldia

Basteroko ekitaldia amaitu ostean, parte-hartzaile guztiak Ortzaikako karobira (Goiburu) kalejiran abiatu ziren. Izagirreraren senitartekoek eta adiskideek

ez ezik, kalejira Burdina taldeko kideek eta honekin elkarlanean jarduten duten udalerrietako ordezkari politikoek osatu zuten. Ortzaikan, Maizorri txalaparta eskolako kideek eta Beñat Beloki Punttuka bertso eskolako bertsolariak ekin zioten ekitaldiari. Eta segidan, Burdina taldeko kide nekazezina ere izan zen Joxe Pablo Usandizaga gogoan hartu zuten bertaratutakoek. Izagirreraren eta Usandizagaren senitartekoei oroigarri bana eman ostean, karobia piztu egin zuten.

Ekitaldiaren amaieran, etorkizunari begira jarri ziren guztiak. Santana historialariak guztien pentsamendua hitzetara eramaten jakin zuen: “Beharbada, euskal kulturak gaur egun daukan aditu ezkutuen izan daiteke Manu. Aitormen publikoa merezi du, eta alde horretatik, guk egin dezakeguna ondare historikoa berreskuratzea eta argitan jartzea izan daiteke, Izagirrek nahiko lukeen moduan. Burdinako kideek, zuek ere bide horretatik tinko segi behar duzue”.

Ekitaldi sorta irailaren 28an



Igartubeitia baserriaren eraikuntzan esku hartu zuen Ramon Aiertza arkitektoa izan zen hitza hartu zuenetako bat. AIURRI



Zumea plazatik Ortzaikara kalejiran joan ziren, Arruti anai-arrebekin. AIURRI



Manu Izagirre eta Joxe Paulo Usandizagaren senitartekoak, Ortzaikan. AIURRI



Juan Garrido, orain arte eraiki dituen zenbat galeoien ondoan. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Gutxienez pare bat urte behar izaten ditu Garridok itsasontzi bakoitza bukatzeko. “Egunean, batez beste, hiru ordu eta erdi eskaintzen dizkiot zaletasunari, astelehenetik ostiralera bitarte”.

Destruktore bat kenduta–Bismarck korazatua, alemanek eraikia II. Mundu Gerrarako–, aintzinako galeoia eraikitzen ditu. Azken horien artean, adibidez, nabarmentzekoa da Espainiako itsas armadaren "Santísima Trinidad" izeneko galeoia; XVIII. mendean Britania Handiaren kontra egindako gerretan erreferentziazko ontzi bilakatu zena; edo eta, XVII-XVIII mendeetako Britania Handiko itsas armadako galeoia, "Sovereign of the seas" izenekoak. Oraintxe, San Martin izeneko 1580. urteko galeoi portugaldarra eraikitzen ari da, “Itsas Armada Garaitezina” osatu zuen.

Juan Garridok atalez atal erosten ditu piezak, Andoaingo liburu dendetan. “Ehundik gora faszikuluk osatzen dute itsasontzi bakoitza. Horietan, itsasontziaren historia eta planoa datorkizu, eta baita hura eraikitzeke pausoz pausoko azalpenak ere. Erakargarria egiten

Juan Garrido, galeoia eskuz egiten dituen artisaua

Juan Garridok itsasgintzaren historian famatuak diren itsasontzien maketak egiten ditu, eskuz. Txukuntasun eta xehetasun handia behar duen lana da. “Pazientzia, denbora eta gogoia behar dira langintza horretan murgiltzeko”, horixe bere sekretua

zaizu egitasmoa, begiratu batean. Eta hasi, gogoz has zaitezke, baina aurrera jarraitzeko diziplina eta konstantzia handia behar da. Nik dakidala, Andoainen beste bizpahiru pertsona ibiltzen dira antzeko kontuekin”.

Bapatean piztu zitzaion maketekiko zaletasuna. “Behin, igande batean, ogia eta egunkaria eroatera etxetik irten, eta Stop liburutegian faszikulu bat ikusi nuen. “Zergatik ez probatu?” bota nion erronka

nire buruari. Itsasontziek ukitu ninduten bezala, egin ziezaketan autoek, motoek, edo ez dakit zerk”. Baina itsasontzia izan zen, eta geroztik historian aski ezagunak diren itsasontziak eraiki ditu.

“ZERGATIK EZ PROBATU? ERRONKA BOTA NION NIRE BURUARI”

“AURRERA JARRAITZEKO DIZIPLINA ETA KONSTANTZIA HANDIA BEHAR DA”

Eskulan artetsua

Garrido 1954tik 2001era bitarte Sapa lantegiko langilea izan zen. “Doitzailea nintzen, ia dena eskuz egiten zen garai haietan. Bertako ehundegientzako orratzak egiten jardun nuen urtetan, lima eskuetan nuela. Ez dut uste doitzailearen ofizioa gaur egun mantentzen denik, programatutako makinak asmatu zirenez geroztik. Seguruenera, urte horietan pilatutako eskarmentu hori itsasontziak egiteko orduan lagungarria egin zait. Izan ere, makina bat pieza txiki-txikiz eraikitzen da maketa. Egurrezkoak dira pieza gehienak, letoi edo aluminiozkoak beste batzurekin batera”.

Margotu egin behar izaten ditu pieza horiek. Lanerako orduan badira bi eskuez eutsi ezin diren piezak, eta halakoe-tan, txotxak erabiltzen ditu Garridok; kola jartzen die puntan horiei, piezak bertara itsasteko.

Era berean, galeoia haizeoihalak erabiltzen dituzten itsasontziak dira, eta beraz, hari fin ugari behar izaten da.

Erakusgai kalean

Garrido Enaitza liburutegiko erakusleihoan pare bat itsasontzi jartzera animatu zen behin, jendeak ikusi zitzan. Bi urte egin zituzten bertan, Zumea Kaletik igarotzen ziren oinezkoen harridura eta gozamenak eraginez. Gehiagoetan jarriko lituzke erakusgai, baina zainketa eta kontserbazio zailen piezak direla adierazi du: “Delikatua dira, askatu edo hautsi daitezkeen pieza txiki ugari dauzkate, eta gainera, hautsez betetzen dira. Horrexegatik, etxean itsasontziak kristalezko erakusleihoan sartzea erabaki nuen”.



Urriaren hasieran kanpaina berriari ekin diote. ATZEGI

"Bizi nire errealitate intelektuala eta mugak hautsi"

Atzegik kanpaina berriaren aurkezpen ekitaldi irekia egingo du urriaren 8an, Donostiako Antzoki Zaharrean

Erredakzioa ANDOAIN

Beterri-Buruntzako Atzegiko kideek kanpaina berriaren aurkezpen ekitaldia egin dute, aste honetan bertan. Lasarte-Orian deitu zuten agerraldian, mezu argia zabaldu nahi izan zuten: Gizarteari ahalegin bat eskatu nahi diote, adimen desgaitasuna duten pertsonen lekuan jar daitezten. Atzegiko kideek "egunerokoan aurkitzen dituzten zailtasunez jabetzea dugu helburu, eta ahal den heinean guztiontzat ulergarriagoa izango den mundu bat sortzeko aldaketak egitea eskatuko zaie".

Adibide praktikoak

Kanpainaren eskuorrian argibideak eman dituzte. Jendaurreko komunikazioari begira, esaterako, mezuak argi idaztea, testuak irudiekin lantzea edota komunikazioko elementuak bereizteko koloreak erabiltzea. Hori guztia azaltzeko adibide

praktikoak jarri dituzte. Esaterako:

- "Ostalaria bazara, menuan irudiak erabili".
- "Dendaria bazara, prezioak argi azaldu".
- "Administrazioan idazkiak modu sinple eta errazean idatzi".
- "Eraikinetan, adierazpenak modu argi eta ulergarrian ezarri".

Urriaren 8an ekitaldi nagusia, Donostiako Antzoki Zaharrean

Kanpainaren aurkezpen ekitaldia ikuskizun bilakatu ohi dute, eta sarrerek agortu egiten dira. Atzegiren ikasturte hasierako jaialdia ikusi nahi duenak hobe du gonbidapena aldez aurretik eskuratzea. Nola? 943 42 39 42 telefono zenbakira deituz, edota atzegizale@atzegi.eus e-postara idatziz. Emanaldia arratsaldeko 18:30ean hasiko da, Donostiako Antzoki Zaharrean.

Taupadak izeneko arreta zerbitzua aurkeztu dute

Andoaingo Udalak Taupada aholkularitza zerbitzua sortu du. Emakumeei laguntza emateko ekimen berria da, eta arduraduna indarkeria matxistan aditua den Izaskun Solagaistua psikologoa izango da

Erredakzioa ANDOAIN

Taupada arreta zerbitzu berria izango da, emakumeenganako tratatu txarretan oinarritutako dena. Ekimenaren bitartez laguntza profesionala eskainiko zaie zerbitzua eskatzen dutenei.

Izaskun Solagaistua aditua

Taupada ekimenaren ardura nagusia berea izango da. Azaroan, gainera, hitzaldia eskainiko du. Hauxe izan zen prentsaurrekoan adierazi zuena: "Andoainen abiatu dugun laguntza zerbitzua egoera ezberdinei aurre egiteko pentsatuta dago. Emakumeek ondoeza sentitu dezakegu, eta batzuetan ez dakigu zergatik. Egoera zehatz bat bizitzen ari direlako. Adibidez, indarkeria matxista. Indarkeriaren kontzeptua ez da bakarrik erlazio bateko indarkeria zuzena. Baizik eta sistema heteropatriarkal honek ere eragiten duena. Jazarpena askotan ez dugu identifikatzen, ezta nondik datorren ere. Ez dakigu oso ondo zer ari den gertatzen, edo bai. Baina hortik aurrera zein pauso eman ez dakigu. Udalak emakume horien gana gerturatzeko erabakia hartu du. Inguruko pertsonen ere eragiten die, askotan lagundu nahi duten arren ez baitakite zer egin. Zerbitzua pertsona horiei ere laguntzeko pentsatuta dago".



Solagaistua aditua, Romero zinegotzia eta Lainez alkatea. AIURRI

Tailerra eta hitzaldia

"Gure ondoezak berr-ikusten"

Ikastaroa urriaren 10ean abiatuko da. Gogoeta espazio bat sortu nahi da, emakumeen ondoezen jatorria identifikatzearekin inguruan. Doakoa da, eta ostegunero burutuko da (18:30-20:30). Izena eman daiteke Urigainen, Atarian, Andoain.eus webgunean edo e-postaz (berdintasuna@andoain.eus)

Hitzaldia Basteron, azaroren 8an

Izaskun Solagaistuak eskainiko du Basteron azaroaren 8an. Solagaistuaren hitzetan, "Emakumeen aurkako indarkeria edo tratatu txar kasuetan inguruaren esku-hartzeari buruz arituko gara. Emakumeen senitartekoei, lagunek edo gertuko beste pertsonen izaten dituzten zailtasunei buruz arituko gara, jarraibideak eskainiz".



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

ERNAI ANDOAIN

Andoaingo Gazte Eguna: "Herria gaztetuko dugu"

Euskal Herriak hamaika eraso jaso ditu azken urteotan eta, hori, baieztapen objektiboa da. Hein handi batean, Estatu espainiarra iraganean murgilduta bizi da. Bizi da baino, bizi nahi du eta, oraindik, "todo es ETA" teknikaz baliatzen da Euskal Herritarrok eta, beraz, Euskal Gazteria zapaltzeko. Baina gaizki ateratzen ari zaie, gure "bekatu" bakarrra solidaritatea eta ideia jakin batzuk izatea baita.

Adibide garbitzat jo dezakegu irailaren 16ko 47 kideen epaiketa. Presoen aldeko lana egiteagatik zigor justifika ezinak eskatzen zizkieten. Noski, epaitutako kide hauek beti izan duten kartzelak husteko borondateak akordio bat gauzarazi zuen, nahiz eta akordio hori erreala ez izan.

Baina halere, beraietako bi zulora –denbora "gutxiz" bada ere ohituak gaudena kontuan hartuta–, eta isun ekonomiko mardulak –Herriaren konpromisoari esker ordaindu ahal izan zirenak– jasan behar.

Honi dagokionez, Andoaingo Ernaiko kideok, herriko Gazte Eguna –urtero egin ohi dena– makroepaiketaren aurkako lema erabiltu burutu nahi genuen. Batik bat, hau salatu eta diru bilketarekin epaituak sustengatzeko. Egun hau, asanblada xume batekin,

"URRIAREN 5EKOA KARTZELAK HUSTUTZEA ESKATZEKO BALIATUKO DUGU"

bazkari herrikoiarekin, arratsaldean elektro-txarangaz herria zeharkatuta eta Gaztetxeko kontzertuekin girotu nahi genuela adostu genuen asanblada irekietan. Hori guztia, gazte guztiok "47akHerrian" leloa zeukan niki urdina jantzita egingo genuen: festa giroan herria mugitu eta gure errebindikazioa argi ikus zedin. Akordioa lortuta eta epaiketa amaituta ordea, ideia horrek zentzua galdu du.

Horren ostean, egoerarekin kontent ez eta oraindik ere

"DENAK HERRIAN IZANGO DA AURTENGO GAZTE EGUNEKO LEMA NAGUSIA"

salatzeko asko geneukala ikusi dugu Ernaiko kide garenok eta ez garenok. Izan ere, hein handi batean, makroepaiketak islatzen du Euskal Herrian solidaritatea eta presoen aldeko lana mehatxupean dagoela, zer esanik ez erasotzen errazagoak garen gazteengan. Baina horrek ez gaitu izutzen, eta erantzun moduan, 47akHerrian eko kideek egin zuten bezala, urriak 5ean ospatuko dugun eguna kartzelak husten jarraitzeko erabiliko dugu.

Hori dela eta, oraingoan, "Denak Herrian" izango da gure lema. Izan ere, Andoainen behar eta nahi ditugun Ainhua eta Axierrek, zein herriratu behar ditugun gainontzeko 247 preso eta iheslari denek beren herrietan

egon behar dutela argi gera dadin.

Bukatzeko, argitu, aipatutako helburuak lortzera bidean, lehendik aurreikusita genituen ekintzak egingo ditugula. Goiz goizetik kamisetak jantzita kalean asanblada-hitzaldi xume batekin hasi, Kale nagusian bazkaldu, elektro-txarangarekin soinu atera eta pote batzuk hartu eta gauean kontzertuak! Horrela, parranda giroan, gazte garela ahaztu barik, baina salatzeko asko daukagula adieraziz gauzatuko dugu eguna. Azken finean gu gara Herria (Andoain) eta Euskal Herria gaztetuko dituztenak: alde batetik, herriari falta zaion bizitza emanda; eta bestetik, Euskal Herria gotortu nahi duten iragan zaharretik aterata.

andoainDARRA
euskaraz

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Aiurri eskuragarri:
Etkez etxeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da.
Umetan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Umetan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ALIATUAK:** **TOKIKOM**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA **Umetan udala**

DIRLIZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berlitasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA: **Bikam**

BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.



Uda giroko eguraldiarekin igaro dira San Migel jaiak, Urnietan. Azken urteotan ohiko bilakatu denez, haien hasieran San Juan plaza jendez bete da. AIURRI

Garaialde eta Niebla gogoan

Jaien hasiera bi kirolari handiren eskutik iritsi zen. Nahikari Garcia nazioarte mailako kirolaria da, eta baloiari emandako lehen ostikadak gogoratu zituen. Gabirondok, bere aldetik, hitz goxoak eskaini zizkien Mikel Garaialderi eta Asier Nieblari

Jon Ander Ubeda URNIETA

Azken urteotako joerari eutsiz, jaien hasierakoa urteko ekitaldi esanguratsuen bilakatu da Urnietan. Jende gehien biltzen duen hitzordua da, Mielaren jaitsierarena. Kanpandorretik udaletxera jaitsi orduko, pregoia irakurriko duten protagonistak balkoira atera ohi dira. Aurtengo protagonistak Julen Gabirondo segalaria eta Nahikari Garcia futbolariak izan ziren.

Nahikari Garciari, azken egunetan, lana biderkatu egin zaio. Futbol jardunaz gain, gizarte bizitzan agerpen handia izaten ari da: Omenaldia eta sari banaketa ekitaldia Andoainen, Kopa irabazi zuteneko dokumentalaren aurkezpena Zinemaldian... Zerrenda horri Sanmieletako jaien hasierako pregoia erantsi behar zaio. Ez zuen luze hitz egin, baina zorrotz hitz egin zuen: "Festak

guztienak dira, eta errespetuz eta era baketsuan ospatu behar ditugu. Urnietar bezala jaio, hezi eta baloiari lehen ostikoak eman dizkiot. Beraz, gora Sanmielak eta gora Urnieta!"

Urte gehiago ditu Gabirondok, eta bizitzaren alde ezberdinak gertutik ezagutu ditu. Segan Euskal Herrian ia inork ez duen maila erakusten ari da, azken urteotan. Segaren munduan, kirol jardueraz kanpo, une zailak bizitzea egokitu zaio. Galeraz modu xumean eta samurrean hitz egin zuen, jaien hasieran: "Bi mutil etortzen zaizkit buru-

"BI LAGUN DATOZKIT BURURA: MIKEL GARAIALDE ETA ASIER NIEBLA"

JULEN GABIRONDO

ra, biak ere festa giroan gustura asko ibiliko zirenak: Mikel Garaialde eta Asier Niebla. Zortedun sentitzen naiz txikitatik biak ezagutzeko aukera izan nuelako, eta geroztik lagunak izan garelako. Bietako bat nire lagunik hoberena bilakatu zen. Irribarre bat ateratzen zait gogoan ditudan bakoitzean. Orduan konturatzen naiz arrakastak eta diruak ez duela ezertarako balio maite ditugunak alboan ez baditugu. Mikel eta Asier, maite zaituztegu".

Bien adierazpenarekin, hasiera ederra eman zioten jaiari.

"JAIO, HEZI ETA BALOIARI LEHEN OSTIKOAK URNIETAN EMAN DIZKIOT"

NAHIKARI GARCIA



Aurtengo jaien hasierako protagonista nagusiak. AIURRI



Urdanborrek larunbat arratsaldean kalejira egin zuen, elizan sartu aurretik. AIURRI




Suarez eta Hidalgo izan ziren bakailao txapelketako irabazleak. Borja, Timo eta Jose Luis txapeldun-orde izan ziren. AIURRI



Bakailaoa eta Master Txef txikia lehiaketak

OLAIA BUENO
ABALLARRI GURASO ELKARTEA

Hirugarren aldia da bakailao lehiaketa antolatzen dugula, eta parte hartzaileei eskerrak eman beharrean gaude. Aurtur bikote pare bat gehiago izan dira, eta gure helburua urtetik urtera parte hartzea handitzea da. Elkarte bezala herriko jaietan parte hartu nahi dugu, eta hauxe da proposamena.



AIURRI

Guraso talde bat gara, eta lehiaketa honetan parte hartzea herritar guztiei zabaltzea. Master Txef Txikia lehiaketarekin ere gauza bera. Osagai ezberdinak eskaini zaizkie parte hartzaileei, eta hortik aurrera epaimahaiari oso pintxo ikusgarriak eta goxoak iritsi zaizkio.



Master Txef Txikia lehiaketako partaideak, epaimahaiarekin batera. AIURRI



Master Txef pintxoak. AIURRI

Parrilla goxoa dastatzeko aukera

LUPE MARTIARENA
DENDA BERRI

Oso ondo joan da parrilla jatea, herrikide ugari hurbildu baita. Gaurko egunez, ordea, bazkari bat baino gehiago dago antolatuta eta jendeak lehenago alde egin du. Lehenik ere Denda Berriko jendea eta senideak hurbiltzen ziren, eta aurtengo jaien aurkezpenean herritar guztiei



AIURRI

zabalduta dagoela nabarmendu da. Urnietarrez gain, kanpoko jendea ere hurbildu da. Herriari begira jaietan ekimenak sustatzen ahalegintzen gara. Arratsaldean dantzaldia egingo dugu, eta igandean –San Miguel eguna denez– bazkaria. Gure jarduera gehienak sabelari lotutakoak dira.



Denda Berri elkartearen parrillada egin zuten, larunbat eguerdian. AIURRI

Paella jate herrikoia San Juan plazan

LEIRE IBARBIA
JAI BATZORDEKO KIDEA

Gure koadrillan hamabi bikote gara, eta guztiak kanpokoak. Bere garaian elkartu ginen, eta San Miguel eguna tokiren batean edo bestean bazkaltzeko baliatzen genuen. Halakoren batean koadrilla guztiak elkartu eta, beste herrietan egiten duten bezala, herri bazkaria antolatzea



AIURRI

bururatu zitzaigun. Aurtengo deialdia ondo joan da. Aukeran bero gehiegixko. Ekimenak etorkizuna izango du. Aurtengoa lehena izan da, eta izen-ematea 200 lagunentzat mugatu dugu. Jende asko txartelik gabe geratu da, eta gure asmoa kopurua handitzea da.



Paella jatea San Juan plazan. AIURRI



Gazte bazkarian ere paella jan zuten. AIURRI



Udal ordezkaritza zabala elkartu zen San Migel eguneko omenaldian. AIURRI

Urteetako lan onari saria

Lana bizitzaren erdigunean zegoen garaian hazi eta hezi ziren Zaldundegi jatetxeko hiru ahizpak. Bide beretik jarraitu zuten, eta orain ere bizitza jatetxeko lanaren baitan antolatzen dute: Omenaldia jaso ondoren, jatetxera itzuli ziren. Lanera

Jon Ander Ubeda URNIETA

Bero handia San Miguel egunean. Egurdirako eguzkiak gogor jotzen zuen, plazan. Bertan ziren haur danborradako protagonistak, eguzki izpiak saihestu ezinik. Taulagainean, berriz, adinean

gora doazen Zaldundegi jatetxeko ahizpak. Zutik, eguzkia parez pare zutela. Aulkien beharra bazegoen, baina ez zen han bakarra ikusten. Beroa nagusi zenez, omenaldia iragarritako ordua baino lehen hastea eraba-

ki zuten. Mikel Pagola alkateak maisuki gidatu zuen ekitaldia, eta omenduei hitz gutxi baina goxoak eskaini zizkien. Eguneko protagonista nagusiek esker onez eta pozarren hartu zuten omenaldia, eta eurek ere hitz gutxi-

rekin barruan sentitzen zuten poz handi hori adierazi zuten. Udal omenaldia borobiltzeko, Aitor Mendiluzeren bertsoaldia bikaina izan zen. Egi borobilak bildu baitzituen, bertso bakoitzean. "Zaldunegitik pasa ez denak ez du Urnieta ikusi" abestuz amaitu zuen lehen bertsoa. Bigarrenean, "hemengo zeinek ez ote degu zeozer ona jaso han". Urte luzez zerbitzua emateaz gain, Zaldundegik kalitatezko zerbitzua eskaini baitu. Eta, amaierarako, hiru bertso gozoei gatz piska bat erantsiz, bertan zirenei proposamena luzatu zien: "Emaiezue gaur lore sorta ta urte osoan lana". Iñaki Aranzadi apaiza biziko balitz, Mendiluzeren bertsoak bere ahotik maiz entzungo genituzke.

Pozarren egon daitezke, bertsoekin eta omenaldiarekin, Pepita, Axun eta Mari Karmen.



Aitor Mendiluze. AIURRI

Bertso ederrak

Urteak joan eta etorri, Zaldundegik bertan eutsi. Hango mokadu ta hango trago, tratu goxo eta guzti. Denborarekin bihurtu dena erreferentzi nagusi, Zaldunegitik pasa ez denak ez du Urnieta ikusi.

Berdin zaio zer atera mahaira, edozer bota basoan. Hemengo zeinek ez ote degu zeozer ona jaso han. Argi erakutsi diguzue, bai, zuen lanaldi osoan, sukalde baten goxotasuna ez dago gazi gozoan.

Pepita, Axun ta Mari Karmen hirurentzat muxu bana. Eta eskerron erakutsi hau zuen herriak emana. Bi zatitako omenaldi bat da proposatzen dedana: Emaiezue gaur lore sorta, ta urte osoan lana.



Egapedanbor eta Magale haur danborradekin batera, dantzariak, txarangako kideak eta Txanbolin elkarteko txistulariek Udal omenaldian parte hartu zuten. AIURRI



Zutik, ezker-eskuin: Leire Ibarbia, Patricia Celaya, Amaia Vaquero, Lourdes Soto, Izaro del Molino, Maria Muro, Jaione Jauregi, Ainara Isasti, Paula Sanchez, Arantza Iturbe, Ainhoa Garcia eta Marisa Iturbe. Behean, Felipe Ugarte, Kontxi Garcia, Agurtzane Garmendia, Axun Fernandez, Ioritz Lizeaga, June García, Aintzane Elosegí, Unai Iraola eta Jaione Larrañaga. AIURRI



Ainara Isasti, aurrekularia. AIURRI



Unai Lizeaga, atzeskularia. AIURRI



Patricia Celaya, hainbat haurrekin batera. AIURRI



San Miguel egunez ere dantzaldia egin zuten, Jakutegi plazan. AIURRI



Agirren taldea, andoaindarrez osaturiko musika eskaintza. AIURRI

Atal berezia webgunean

Urte osoko jaiekin egin bezalaxe, Sanmielei ere jarraipen berezia egin die Aiurrik lantaldeak. Jaietarako propio sortutako atal berezian dozenaka argazki eta bideo ikusgai daude.



Miela astelehen iluntzean agurtu zuten, datorren urtera arte. AIURRI

Uda giroko Sanmielak

Irailaren 26an hasi eta 30era bitarte, eguraldia jaiaren aldeko elementu garrantzitsu bilakatu da. Eguraldi on horri esker, parte hartzea handia izan baita. Egitarauaren ospakizun gehienak igaro badira ere, asteburu honetan jaiak jarraipena izango du

Erredakzioa URNIETA

Uda giro horretan, astelehenean iritsi zen haurren eguna. Urnietan eskolarik ez zen izan, eta haur eta gazteek egun osoko egitarauaz gozatu ahal izan zuten. Alkate txikiek agintea har-

tu zuten, goizetik iluntzera bitarte. Arratsaldean, jendetza irten zen kalera, erraldoi eta buruhandien kalejirarekin bat egiteko. Ordu beretsuan, Etxeberrri plazan, haurrei eskainitako beste proposamen bat baze-

goen: Egapetxou antzerkia. Joxe Mari Berasategiren zuzendaritzapean, "Zimitorioko sorginak" antzezlan antzeztu zuten. Aurreko ikasturteetan bezalaxe, oraingoan ere, Egape ikastolako haurrek eta gurasoek antzerki-

gintzan trebatzeko aukera izango dute. Astelehen iluntzean eman zioten amaiera jaiari, Mielaren agurrarekin. Ospakizunez beteriko bost egun igaro arren, haur eta guraso batzuri jaiari amaiera ematea kosta egin

zitzaien. Festazaleek Xaiborren esanetara azken dantzaldia egin eta zezen suzkoaren aurrean korrika saio bat edo beste egin zuten. Ez da dena galdu, asteburuan hitzordu gehiago iragarrita baitaude.

Alkate txikien eguna, irailaren 30a



Alkate txikiak eta dantzariak, udaletxeko pleno aretoan. AIURRI

Haurren eguna Carla Montero eta Nikolas Agudo haurrak izan dira aurtengo Alkate txikiak. Udaletxean egin zuten izendapena, astelehen goizean. Izaro Bergara eta Gorka Vega dantzari txikiek belaun-txingo dantza eskaini zieten.



Alkate txikiak Txanbolineko txistulariekin batera. AIURRI

Sanmielak 2019 Aiurri.eus webgunean:

**Protagonistak,
egitarau osoa,
argazkiak, bideoak...**





Erraldoi eta buruhandien konpartsa, San Juan plazan. AIURRI



Erraldoi eta buruhandien konpartsak zaletu ugari ditu. AIURRI



Egapexou antzerki taldeak emanaldia eskaini zuen Etxeberri plazan, haurren eta helduen parte hartzearekin. AIURRI

SANMIELAK AZKEN TXANPA

URRIAK 5

LARUNBATA

09:00-17:00 Lehen Petanka lehiaketa.

09:00-17:00 SuperH futbol festa Burnibide Parkean.

18:00 Agirren taldea Plazido Muxika plazan.

23:00 Mind Trap eta Lord Witch musika taldeak zuzenean plazan.

URRIAK 6

IGANDEA

09:00-13:00 Auto klasikoen erakustaldia.

09:30 Bolo txapelketa.

10:00 Diana txanbolin bandarekin.

10:00 Jalgi plazara Aurrera Gure Ametsaren eskutik.

11:00 Meza eta Ezpata-dantza.

12:00 Ingurutxo.

12:00 Munduko ardoak plazan.

17:00 Herri kirol erakustaldia.

18:00 Agirren taldea Plazido Muxika plazan.

18:00 Txekor jatea eta sagardoa.

18:30 Willy Etxeberria memoriale zesta punta jaialdia.

19:00-20:30 Xabi Solano zuzenean.

20:30 Azken traka.

XOXOKA JAIEN HASIERA

URRIAK 7

ASTELEHENA

12:00 Festen hasiera.

12:30 Herri kirolak: Telleria eta Mugerza anaiak elkarren aurka. Ondoren Elustondo anai-arreba trikitilariak.

14:00 Bazkari herrikoia Amets Arzallus eta Andoni Egaña bertsolariekin, Adarra jatetxean. Tiketak bertan salgai daude.

21:00 Afaria Xoxokako eskolan. Bakoitzak berea eraman!

23:00 Dantzaldia Elustondo anai-arreba trikitilariarekin, Xoxokako eskolan.

URRIAK 8

ASTEARTEA

17:00 Xoxokako III. giza-proba: Ereñozu Xoxokako aurka.

20:30 Zahagi-ardoa Xoxokako eskolan. Jatekoa bakoitzak berea.

23:00 Gau sorpresa.



"Pista dibertigarri baten beharra zegoen"

ALEX MOSTERIN ANDOAINGO SKATE PARK GUNEAREN DISEINATZAILEA

SKATE ZUT arkitektura etxea Bizkaiko kostaldekoa da, eta Allurralde ondoko instalakuntzaren egileak dira. Pozarren daude obrarekin, eta jaso duen erantzunarekin

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Skatepark berriak, ireki dutenetik, erabiltzaile ugari ditu. Hasiera arrakastatsua izan da, Andoaingo eta inguruko herrietako hainbat erabiltzaileekin. Instalakuntza berrien egileetakoa izanik, zein sentazio duzu?

Skatepark dibertigarria egin dugu, eta Gipuzkoak antzeko instalakuntza bat behar zuela ulertzen dut. Bi faktoreek bat egin dute: dibertigarria den instalakuntza eraikitzea, eta hura erabiltzeko beharra.

Gipuzkoan, seguraski, Europan dagoen harrobi garrantzitsuena dago: Alain Kortabitarte, Julen Gonzalez, eta 8-9 urte dituzten beste bi gaztetxo... Hauek denak elkarren artean motibatu dira, eta maila handituz doa. Alain Kortabitarte olinpikoa izango da, 2020an kirol olinpikoa izango baita. Katapulta modukoa bilakatzen ari da skatea, hainbat kirolarientzat. Atzera bueltarik ez du izango, gainera. Aipatu ditudan kirolariak erreferente bilakatu dira, eta Andoaingo pista hegalak eskainiko dizkie.

Andoaingen apustu ona egin dela, horixe aditzera ematen ari zara.

Andoaingoa miragarria da. Lehendik ere erreferentziako herria zen skate munduan, granitozko zorua duten gune oso onak dituelako. Koska bikainak ditu, eta hori *street skate* egiten dutenentzat gozamena da.

Udalak eraikina martxan jarritzea proposatu zigunean, oso argi genuen ez genituela skater horiek kaletik atera nahi. Kolektibo berri bati tokia egin



Alex Mosterin skaterra Andoaingo pistaren egilea da. SCAPE

behar zitzaiola oso argi izan genuen. Bereziki gazteagoak direnei, nagusiki 10-16 urte bitartekoei begira. Finean, horiek ziren instalakuntza berria eskatzen ari zirenak. Scooter, skate, roller edo bizikletarekin erabili ahal izateko *Flow* dela-

"LEHENDIK ERE ANDOAIN ERREFERENTZIAZKO GUNEA ZEN SKATERRENTZAT"

ko gunea eraiki dugu Allurralde ondoko lursailan. Motorrik gabeko edozein tramankulua-ekin gozatzeko moduko pista eraiki nahi izan dugu. Eta lortu dugulakoan nago.

Emakumezkoak ere ikus daitezke, erabiltzaileen artean.

"ANDOAINGO PISTA BERRIAK HEGALAK EMANGO DIZKIE ERREFERENTE DIREN SKATERREI"

Areagotuz doan joera da, Gipuzkoan emakumezkoen kolektiboak goruntz baitoaz. Neskaters izeneko kolektiboa dator kit burura, eta ez da bakararra. Talde bakoitzean hogeina neska dabilta, eta kirol jarduera honetan tokia egiten ari dira.

Hasierako ideia gauzatu ahal izan duzue Andoaingen, ala aldaketa asko egin dira egitasmoa bideratu den bitartean?

Oso pozik nago egindakoarekin. Gozamena da Andoaingo Udalak erakutsi zuen jokabidea, guregan konfiantza osoa ipini zuelako. Esku onetan utzi zuela esango nuke, guk patinaia maite dugulako. Ez dut egitasmoa garatu ahal izateko eragozpenik eduki. Igerilekuko emergentziazko irteera, ikusle goaren segurtasuna... horiek guztiak kontutan hartu dira. Teknikoki, pista egiteko garaian, askatasun osoa eman digute. Guk izan dugun diru partidarekin pistarik onena egiten saiatu gara. Langileak bertan izatea, kostu handiena hori izan da. Pista eraikitzen egon ginen bitartean modulu ezberdinetan probak egin genituen, modulu horiek bihurtuz, zailduz... beti ere pista dibertigarriagoa egiteko helburuarekin. Udalak erantzun guztiak ipini zizkigun.

Ireki zutenean belarra falta zen, akaso. Baina, Gipuzkoan izanda, belarra haztea denbora kontua izango da.

Bertaratu ginenean, lehenengo egunetan, skater ezberdinekin solasean aritu ginen. Haietako batek adierazi zigun pista oso gogoko zuela. Zergatia galdetzerakoan hauxe haietako baten erantzuna: "Pista egin duenak ondoko dakielako zer egiten ari den".

Eskerrak eman beharrean nago. Atsegin handiz behar zuten ditut horrelakoak. Ez da harrokeria, gure lana oso gogoko dugu. Hogeita hamar urte daramat patinaian, eta instalakuntza hauek eraikitzea nire ogibidea da. Gogoko dut ondo egitea, eta jatekoa pista eraikitzeak ematen dit. Instalakuntza on baten atzetik beste proposamen berriak

iritsi daitezke. Piskanaka goaz, lan onak eginez. Andoaingo instalakuntzarekin, ekonomikoki, mugara iritsi naiz. Baina nire apustua izan da. Andoaingen gure marka, gure zigilua utzi nahi izan dugu. Ea herri gehiago antzekoa egitera animatzen den. Hori da niretzat, orain, garrantzitsuena. Ereite lana izan da niretzat, etorkizunean antzeko lanak egiten jarraitzeko gazte sentitzen bainaiz.

Andoaingo eraikuntzak zeresana emango du, eta ziur nago beste udalerrri batzuetan ere antzeko pista egiteko egitasmoak lantzen hasiko direla. Urrutira joan gabe, Astigarragan edota 1990eko hamarkadako pista zaharkitua duen Lasarte-Oria herrian.

Andoaingoa erakustaldiak edo txapelketak egin beharko liratekeela iruditzen al zaizu?

Normalean beti egiten da ospakizunen bat. Irekiera festa izaten da, erakustaldi modukoa. Tradizio handia ez dagoen herrietan profesional mailako 3-4 skater ekar daitezke. Elgoibarren horixe egin genuen, eta hara emakumezkoen skater taldea ere eraman genuen. Musika ipini eta patinaian ibiltzen dira, beti ere bertakoei erakustaldiren bat egiteko aukera eskainiz. Speaker edo aurkezlea egoten den kasuetan, bozgorailutik ikusle modura dauden skaterak parte hartzea gonbidatu ditzake. Beti ere erakustaldia amaitutakoan. Elgoibarko irekierara itzuliz, irekierari amaiera emateko pizzak erosi eta denen artean banatu ziren.

Andoaingo kasuarekin harrituta nago, harriz azpitik ere skaterak agertu direlako. Eraikitze lanetan haurrak besterik ez genituen ikusten, eta lanak amaitu direnetik hogeita hamar gazte inguru ari dira instalakuntza modu iraunkorrean erabiltzen. Gozatzen ari dira, interneteko sare ezberdinetan esker oneko mezuak idazten... Andoaingo instalakuntza berria zeresana ematen ari da skate munduan.

Xoxokako txapelketa azken txanpan sartu da

PILOTA Xoxokako Jai Batzordeak sustatu duen banakako esku pilota txapelketa, azken txanpan sartu da. Egun hauetan final aurrekoak jokatu dira, eta ostegunean eta larunbatean txapelketari amaiera emango diote

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Dozenaka pilotazale Xoxokako pilotaleku txiki eta estuan lehian aritu dira, irailean zehar. Txapelketa amaierara iritsi da.

Finalaurrekoak, ostegunean
18:00 Julen Loidi-Erlaitz Arrieta.
18:30 Josu Mujika-Suharri Irazustabarrena.

Finalak, larunbatean
17:00 Haur mailako 3-4 postuak.
17:30 Helduen mailako 3-4 postuak.
18:00 Haur mailako finala.
18:30 Helduen mailako finala.



Xoxokako pilota txapelketaren lehen edizioa da, aurtengoa. AIURRI

Jauzia handia da

ESKUBALOIA Etxean jokaturako lehen partidari galdu egin zuten, Aloña Mendi talde indartsuaren aurka (26-28). Zaila dago, jauzia handia baita, baina hortxe dabilta borrokan. Urrietako lehen taldea maila ematen ari da. Erronka txikiak ipinita, denboraldi ona egiteko moduan egon daitezke. Lehen erronka argia da: denboraldiko lehen garaipena eskuratzea.



UIKE

Asier Nieblaren aldeko krosa

LASTERKETA Datorren urriaren 12an herri lasterketa egingo dute Urrietan. Antolatzaileek bi ibilbide prestatu dituzte. Oinezkoentzat, 2 kilometrokoa. Lasterkariarentzat, berriz, 7,5 km-koa. Biak plazan hasi eta amaituko dira. Lasterketan edonork har dezake parte www.kirolprobak.com webgunean, urriaren 4ra bitarte. Prezioa 8 eurokoa da, lasterkariaren kasuan.



AIURRI

KARTELDEGIA

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA		
Aretxabaleta-Euskalduna		0-0

SAILKAPENA

1	Anaitasuna	9 puntu
2	Amaikak Bat	7 puntu
4	Euskalduna	7 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00	Euskalduna-Ordizia / Ig, 6
-------	----------------------------

NESKAK, O. ERREGIONALA		
Leintz Arizmendi-Urnieta		2-0

SAILKAPENA

1	Tolosa	6 puntu
10	Urnieta	1 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00	Urnieta-Tolosa / Lar, 5
-------	-------------------------

ERREGIONAL PREFERENTE		
Urnieta-Mundarro		1-1

SAILKAPENA

1	Allerru	7 puntu
11	Urnieta	4 puntu

1ª ERREGIONAL MAILA		
Euskalduna-Ordizia		2-1

SAILKAPENA

1	Anaitasuna	7 puntu
2	Euskalduna	7 puntu

PREFERENTE NESKAK		
Axular-Euskalduna		1-4

SAILKAPENA

1	Añorga	6 puntu
2	Euskalduna	6 puntu

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA		
Euskalduna-Billabona		4-3

SAILKAPENA

1	Euskalduna	9 puntu
2	Ekintza	7 puntu

JUBENILEN 1ª MAILA		
Billabona-Urnieta		0-2
Ordizia-Euskalduna		0-0

SAILKAPENA

1	Danena	9 puntu
3	Urnieta	6 puntu
7	Euskalduna	1 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00	Urnieta-Hernani / Lar, 5
16:00	Euskalduna-Ostadar / Lar, 5

KADETE, A MAILA		
Euskalduna-Hernani		5-0

SAILKAPENA

1	Euskalduna	9 puntu
2	Lengokoak	9 puntu
6	Urnieta	0 puntu

KADETE, B MAILA		
Amara Berri-Euskalduna		0-6

SAILKAPENA

1	Santo Tomas Lizeoa	9 puntu
5	Euskalduna	3 puntu
6	Urnieta	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

13:00	Urnieta-Amara Berri / Lar, 5
12:40	Euskalduna-Lizeoa / Lar, 5

KADETE NESKAK		
Euskalduna-Martutene		1-1

SAILKAPENA

3	Euskalduna	4 puntu
8	Urnieta	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00	Urnieta-Tolosa / Ig, 6
-------	------------------------

ESKUBALOIA

EUSKADI, SENIOR MUTILAK		
Urnieta-Aloña Mendi		28-23

SAILKAPENA

1	Basauri	4 puntu
12	Urnieta	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:30	Urnieta-Txikipolit / Lar, 5
-------	-----------------------------

GIPUZKOA, SENIOR MUTILAK		
Leizaran-Aloña Mendi		35-30

SAILKAPENA

1	Txingudi	4 puntu
4	Leizaran	2 puntu

GIPUZKOA, JUBENIL MUTILAK		
Urnieta-Egia		43-27
Leizaran-Tolosa		29-29

SAILKAPENA

1	Urnieta	4 puntu
5	Leizaran	1 puntu

GIPUZKOA, JUBENIL NESKAK		
Tolosa-Leizaran		10-29

SAILKAPENA

1	Eibar	4 puntu
2	Leizaran	4 puntu
3	Urnieta	2 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA		
16:45	Urnieta-Astigarraga / Lar, 5	
17:30	Leizaran-Bera Bera / Lar, 5	

GIPUZKOA, KADETE MUTILAK		
Ordizia-Leizaran		19-37
Urnieta-Arrasate		26-17

SAILKAPENA

1	Leizaran	4 puntu
2	Amenabar	4 puntu
3	Urnieta	2 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA		
10:45	Leizaran-Bera Bera / Lar, 5	

GIPUZKOA, KADETE NESKAK		
Ereintza-Leizaran		20-28

SAILKAPENA		
1	Eibar	4 puntu
4	Leizaran	2 puntu
4	Urnieta	2 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

11:30	Urnieta-Orio / Ig, 6	
16:00	Leizaran-Eibar / Lar, 5	

ARETO FUTBOLA		
KOPA, 1. JARDUNALDIA		
Ventanas Isu-Euskalduna		1-10

LIGA, 1. JARDUNALDIA		
ASTEBURUKO PARTIDA		
16:00	Egarri-Euskalduna / Lar, 5	

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 4

ANDOAIN Ikuskizuna

L izeneko dantza, poesia eta musika ikuskizuna, Lauaxeta eta Lorca uztartuz. Euskaraz eta gaztelaniaz. Jon Maia bertsolariaren ideiatik abiatuta. **21:30, Bastero. 12 euro.**

LARUNBATA 5

ANDOAIN Gazte Eguna

Goizean hasi eta egun osoan zehar ospakizunak Andoainen. **Egun osoan zehar.**

ANDOAIN Herrien festa

Trianaren eskutik, goizean herriko taldeen partaidetza. Eta arratsaldean inguruko herrien dantza emanaldia. Emanaldi guztiak Nafarroa plazan. **12:00, herriko kultur taldeak. 17:30, kanpoko dantza taldeak.**

ANDOAIN Erakusketa

"Eremuak-Harriak", erakusketa berriaren irekiera. **18:00, erakusketa gela. Bastero.**

ANDOAIN Kontzertua

Robyn Hitchcock eta Joseba Irazoki eta lagunak tadeak zuzenean arituko dira. Hitchcock britainiarra ibilbide luzeko abeslari eta sortzailea da. **21:30, Bastero. 12 euro.**

URNIETA Sanmielak

Ekitaldi ezberdinak arratsaldean hasi eta gauerdia arte. **Hitzorduak, erdiko orrialdeetan.**

IGANDEA 6

URNIETA Sanmielak

Arrosadiako Amaren egunarekin bat eginez, ospakizun ugari baserriarren egunean. **Hitzorduak, erdiko orrialdeetan.**

ASTELEHENA 7

ANDOAIN Ikastaroa

Mindfulness. Urrian hasita, bi hilabetez astean behin elkartuko dira. Dinamizatzailea: Klara Worffram. **16:30-18:30, elebietan. Urigain.**



Dukkha musika taldea zuzenean arituko da Gaztetxean, larunbatean. DUKKHA

ANDOAIN Gazte Eguna Andoainen

11:30 Partaideak elkartuko dira.
12:00 Asanblada eta argazkia.
13:30 Bazkaria.
18:00 Elektropapo elektrotxaranga.
20:30 Afari-merienda Gaztetxean.
22:00 Kontzertuak: Desegin, Dukkha, Herenegun.

Antolatzaileen oharra: Azken egunetan kamiseta eta bazkariaren txartela erosi nahi duenak 10 euro ordaindu beharko ditu. Kontzertuaren prezioa 5 eurokoa izango da. **Urriak 5, larunbata.**

ANDOAIN Tailerra

Emasolas ekimenaren baitan, hiru hitzordu ezberdin. Lehena: "Zertaz ari gara hitz egiten boterea eta jabekuntza aipatzen ditugunean?". Irakaslea: Bea Zalakain. **18:30-20:30, gaztelania. Urigain.**

URNIETA Xoxokako jaiak

Eguerdian hasita, herri kirolak, bertso bazkaria, afaria eta dantzaldia. Elustondo anai-arrebekin. **Hitzorduak, erdiko orrialdeetan.**

ASTEARTEA 8

URNIETA Xoxokako jaiak

Giza proba, zahagi ardoa eta gau sorpresa. **Hitzorduak, erdiko orrialdeetan.**

ANDOAIN Ikus-entzunezkoa

Lan honek ezagutza eman nahi du nor zen Aita Arizmendiarieta, mundu osoan erreferentziazkoa den ekintzaile soziala, Mondragon Korporazioaren sortzailea eta Euskadin mugimendu kooperatibista bultzatu zuena. **19:00, Bastero. 3 euro.**

OSTEGUNA 10

ANDOAIN Ikastaroa

Euskal dantzak, Urkiren eskutik. Izena emateko azken eguna urriaren 10a izango da. Asteartero elkartuko dira, urriaren 15ean hasi eta datorren maiatzaren 26ra arte. Bi ordutegi ezberdin eskainiko dituzte: 19:00 Oinarritzko maila. 20:00 Maila aurreratua. **Asteartero, Olagaineke egoitzan.**

ANDOAIN Taupadak

"Gure ondoezak berrikusten" izeneko ikastaroaren hasiera, abenduaren 19ra bitarte. Ostegunero elkartuko dira, 18:30etik 20:30era. Antolatzailea Udaleko Berdintasun saila da. **Informazioa: Urigain etxea.**

OSTIRALA 11

URNIETA Xoxokako jaiak

Arratsaldean hasi eta igandera bitarte, ospakizun ugari asteburu osoan zehar. **Hitzorduak, erdiko orrialdeetan.**

ZINEMA



ANDOAIN

ZINEMA

Mientras dure la guerra
Lar, 5: 19:30, 22:00.
Ig, 6: 19:30.
Asti, 7: 19:30, 22:00.

Toy Story 4

Lar, 5: 17:00.
Ig, 6: 17:00.
La directora de orquesta
Lar, 12: 19:30, 22:00.
Ig, 13: 19:30.
Asti, 14: 19:30, 22:00.



SINOPSIS



Mientras dure la guerra

Zuzendaria, gidoia, musika: Karra Elejalde, Eduard Fernandez, Santi Prego, Patricia López, Inma Cuevas, Nathalie Poza,...
Herr.: Espainia (2019). **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 107 min.

Amenabarren film berriena

Elejalde Unamunoren paperean ageri da, Espainiako 1936ko Gerraren baitan. Zuzendaria Francoren aldeko militarren eta intelektualaren arteko talka ezagunean oinarritu da. Indarra eta intelektualitatea aurrez aurre agertzen dira.

Zeresan handia eman duen filma izaten ari da, gai honetan ekidistantzia hartzea beti baita zaila. "Tesis", "Abre los ojos", "Los otros", "Mar adentro" edota "Agora" filmen ondoren, lan berria dakar Alejandro Amenabar ezagunak.


2020ko egutegia osatzeko deialdia

Andoaingo Udalak datorren urteko egutegia argazkiz hornitzeko lehiaketa abian jarri du. Eguberrien atarian banatu ohi da Udal egutegia, baita azkar batean agortu ere. Interes handia pizten duen argitalpena da, Andoaingo hainbat etxeetan ipintzen dena. Ohar bidez, Udal Artxibokoek deialdiaren berri eman dute: "Aurreko bi urtetan bezala, datorren urteko egutegia herriararren partaidetzarekin osatu nahi da. Lehiaketa bidez 12 argazki aukeratuko dira, egile bakoitzak 100 euroko saria jasoz". Gaiari dagokionez, Andoaingo arkitektura da izango da hirugarren edizio honetarako aukeratu dutena. Dagoeneko parte hartzeko aukera zabalik dago, datorren azaroaren 4ra arte. Saridunen berri azaroaren 15ean emango dute. Lehiaketaren oinarriak www.andoain.eus webgunean kontsulta daitezke.



2019ko Udal egutegia. AIURRI

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Lara
Zorionak zure hirugarren urtebetetzean Lara. Ondo pasa eta muxu potoloak familiaren partez!



ANDOAIN
Unai Zatarain
Urriaren 13an urteak beteko ditu. Zorionak etxekoan partetik, zure seme Oinatz, Unax eta Aner iloben partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus
Sar zaitez "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean.

diseinua@aiurri.eus
Idatzi: izen-abizenak, herria, eguna.
Arantzibia 4-5, behea
Etor zaitez bulegora, Andoainera.
Whatsapp bidez:
619 163 537.

Parte hartzean gora

Joan zen larunbat goizean Andoaingo Zumea plaza postuz beterik zegoen. Eta, aukeran, produktu sorta zabala zegoen aukeran: Jantziak, jostailuak, gailu elektronikoak... Bigarren eskuko azoka errotuz doa, urtez urte



Pitxiak, jostailuak..., denetik aurki zitekeen. AIURRI



Arropa erosteko aukera zegoen, postu ezberdinetan. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN
Berrerabilpena ardatz hartuta, duela hamabost urte, bigarren eskuko azoka antolatzeari ekin zion Andoaingo Udalak. Ekimen berritzailea zena gorpuztuz joan da, eta dagoeneko plaza postuz betetzeko gai dira.

Larunbatean, Zumea plazan, postu ugari ipini zituzten. Eta, aukeran, erosteko moduko dozenaka produktu: Arropa, jostailuak, pitxiak, liburuak eta komikiak, diskoak eta biniloak,... Erosketaren bat egin zutenen artean, hainbat saski banatu

zituzten. Ikasturtearen hasiera-ekin bat eginez, egonkortuz doa bigarren eskuko produktuen azoka. Etxean erabilpenik ez duten hainbat objektu eta produktuei aterabidea emateko proposa da. Aukera berria izango da, hamabi hilabete barru.

"Rikardo Arregi irakurtzen, 50 urte ondoren"

Andoaingo Udala ekimen berria antolatzen ari da, andoaindarraren heriotzaren urteurrenarekin bat eginez

Erredakzioa ANDOAIN
Rikardo Arregik idatzitako hainbat idazlanen irakurketa publikoa egingo dute datorren azaroaren 28an. Goizeko 10:00tan hasiko da Bastero plazan, eta arratsaldeko 18:00ak arte luza-

tuko da. Egin dituzten aurreikuspenen arabera, guztira, 225 lagunene parte hartzea behar dute. Andoaingo Udalak, ekimena aurkeztearekin batera, Arregiren izena eta izana agertu du:

"Ekintzailea, pentsalaria, kazetaria, idazlea, hizlaria..., hori guztia izan zen. Bere kezka eta intereseko kontuak zituen euskara, politika, gizarte gaiak oro har, nazioarteko gorabeherak, erlijioa, ideologiak, filosofia eta kulturgintza. Arduratzen zuen baita ere Andoain herriak eta Andoaingo euskararen eta kulturaren osasunak. Badira bi hitz Rikardoren ikuspegia eta jarduna laburbiltzen dutenak: berrikuntza eta askatasuna. Berritzailea eta askatasunaren

ODOL EMAILEAK

ANDOAIN
Urriak 8, asteartea
18:30-20:30.
Anbulatorioa.



GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN
Larunbata 5 eta igandea 6
ZATARAIN: Elizondo, 6.
943 59 08 02 Andoain.

URNIETA
Larunbata 5 eta igandea 6
GOMEZ: Nagusia, 14.
943 55 48 92 Hernani.
GAUEZ: ALDABE. Hernani.



Triana taldeko kideak, iazko Herrien Jaia ospakizunean. AIURRI

Herrien eguna Nafarroa plazan, Trianak antolatuta

Eguerdiko saioetan Andoaingo taldeek parte hartuko dute, eta arratsaldean kanpokoei tarte eskainiko diete

Erredakzioa ANDOAIN
Migrazioei buruzko solasaldi interesgarria antolatu zuten, asteazkenerako. Asteburuari begira, Triana taldeak egun oso-ko ospakizuna iragarri du. Eguerdiko 12:00tan, Gora Kaletxiki txaranga Nafarroa plaza girotzen

hasiko da. Alberto Agirre abesbatza, Olagain, Soinuak eta Maizorri arituko dira, jarraian.
Dantza ikuskizuna arratsaldean
17:30ean hasita, Lasarte-Oriako Erketz, Donostiako Centro Extremeño eta Triana.



Rikardo Arregi. AIURRI

defendatzaile sutsua izan baitzen berak ukitu zituen arlo guztietan".
Boluntario bila
Azaroaren 28ko irakurketa publikoan izena eman nahi duenak urriaren 11 baino lehen egin beharko du 682342679 telefono zenbakira deituz edota rikardoarregi@andoain.eus emailera idatziz.
Egun berean, 19:00tan hasita, izen bereko kazetaritza sarien ekitaldia izango da.



Astigarragako final handira hainbat sagardogile hurbildu ziren. AIURRI

Sagardozaleen esku dagoen txapela

Sagardoa Route-Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak antolatua, joan zen larunbatean Euskal Herriko sagardo txapelketa herrikoia bosgarren edizioako finala jokatu zen. Sagardozaleek, afariaren bueltan, sagardo onena zein den aukeratzen dute

Jon Ander Ubeda AIURRI
Txapela nori eman, sagardozaleen esku dago. Antolatzaileek gogo izaten dute hori errepikatzea: “Zein egokiago sagardoa dastatzeko, kontsumitzailea baino? Herria izan da gaur Astigarragan urteko sagardo txapelduna aukeratu duena. Herriar izatea eta sagardoa gustatzea da parte

hartzeko baldintza nagusia. Sagardoaren inguruko irrika berpiztea, horixe baita lortu nahi izan dena”. Aurtengo finala Ergobian jokatu da, iraileko lehen bi asteetan Euskadiko lau herritan finalaurrekoak jokatu eta gero. Bost edizioetan, aukeratutako herrietako bat Beterri-Buruntzakoa izan da beti.

Eskertza
Sagardoa Routek eskerrak eman nahi dizkio Astigarragako Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Hazi Fundazioari emandako babesagatik. Halaber, esker berezia ere herriz herri txapelketa aurrera eramaten laguntza eman duten talde eta elkartei.

Sailkapena

Irailaren 28an Astigarragako Ergobian jokatu zen Euskal Herriko sagardo txapelketa herrikoia finalean, ondorengo izan da sailkapena:

1. Petritegi (Astigarraga).
2. Lizeaga (Astigarraga).
3. Urdaira (Usurbil).

Finalistak, orden alfabetikoan, hauek izan ziren:

Aburuza (Aduna).
Akarregi (Hernani).
Egi-Luze (Orereta).
Gaztañaga (Andoain).
Oiharte (Zerain).
Rezola (Astigarraga).
Satxota (Aia).
Uxarte (Zornotza).
Zabala (Aduna).

Finalaurreko bakoitzean sailkatutako lehen biak automatikoki sailkatu ziren finalera. Hauek izan ziren:

Aduna (2019-IX-13)

1. Lizeaga (Astigarraga).
2. Akarregi (Hernani).

Lizartza (2019-IX-14):

1. Rezola (Astigarraga).
2. Egi-Luze (Orereta).

Orio (2019-IX-20):

1. Zabala (Aduna).
2. Petritegi (Astigarraga).

Zornotza (2019-IX-21):

1. Gaztañaga (Andoain).
2. Oiharte (Zerain).

Amonarriz, euskara elkartearen Topaguneko lehendakari berria

Kike Amonarrizek Elena Lakaren lekukoa hartu du, Andoainin egin zen ekitaldian

Erredakzioa ANDOAIN
2014tik Topaguneko lehendakari izan den Elena Lakak Toloaldeko Galtzaundi elkarte kide den Kike Amonarrizi eman dio lekukoa, joan zen irailaren 27an Martin Ugalde Kultur Par-

keko areto nagusian egin zuten Batzar nagusian. Bertaratutako bazkideek ahobatez izendatu zuten. Amonarrizek, bere lehen hitzetan, esker ona adierazi zien kideei. Topagunearen 22 urte-tako historian izan diren lehen-

dakarien ekarpena gogora ekarri zuen, kargua ilusioz eta erantzukizunez hartu duela azpimarratuz. Topagunea euskara elkartearen federazioa da eta, besteak beste, Manuel Larramendi Kultur Bazkuna kide sortzaileetakoa da.

Hizkuntza eta kultur aniztasuna, aisialdia, kulturgintza, mintzapraktika, sentsibilizazio lana... eremu horiek dira, Amonarrizen ustean, Topaguneak izan beharko lituzkeen erronka nagusiak.



Laka, Amonarriz eta Irizar Topaguneak Andoainin deitu zuen Batzar Orokorrean. AIURRI